# UDAL ASANBLADAK
## UDAZKENA 2011

## ASAMBLEAS MUNICIPALES OTOÑO 2011

# ARETA

## AZAROAK 21 NOVIEMBRE 19:00h
## KULTURA ETXEA CASA DE CULTURA

## AURRETIKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN PREVIA

**Orri honen bidez ARETAko udal auzo asanblada prestatzeko baliogarria gerta litekeen material bat eskaintzen da. Auzokideek asanblada nola garatuko den argi izan eta aurreko urteetako asanbladetan jorratutako gaiak oroitarazteko informazioa luzatzea da asmoa.**

**Era berean, aurrera begirako proposamenak egiteko erreferentzia egokia izango delakoan, 2009 eta 2010 urteetan ospaturiko asanbladetan jorratutako gaien laburpen bat ere jasotzen da.**

Mediante esta hoja, se pretende ofrecer un material que sirva para preparar la asamblea municipal de ARETA, de manera que los vecinos puedan tener una idea clara de cómo será el desarrollo de la misma, y posean además información para refrescar los temas tratados en años anteriores.

Se ha realizado un extracto de los temas tratados en las asambleas de 2009 y 2010, entendiendo que estas pueden ser una referencia válida para proponer temas de cara al futuro.

**LAUDIOKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# ARETAKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA
ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARETA 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

## 2009KO ARETAKO UDAL ASANBLADAN JORRATUTAKO GAIAK

**ASISTENTZIA: 36 lagun (19 gizon eta 17 emakume)**

HARROBIA/SERENA: "Etxe arrosa"-ko espaloia eraikitzea./ Kotxeen aparkalekua konpondu eta asfaltatzea./ Duela urte batzuk Serenako aparkalekuan marrak margotzea eskatu zen eta 2009an egin gabe jarraitzen zuten.

ANUNTZIBAI/POLIGONOA: Edar eta kolektoreei buruzko informazioa. / Orozko eta Laudiok besteak beste Anuntzibai zein burdinola ingurua biziberritzeko elkarlanari emandako bultzada. Anuntzibai zubiko argiztatzea./ Industria poligonoko eta Aplicako gunea "zabortegi bat" dela aipatzen da eta udal araudi zorrotzak ezartzea eskatu (baita industria izaera duten eskaera berriei ezartzea ere)./ Coronaren hondakinak. / Aplica inguruko argiztatzeari buruzkoak.

GASTEIZ KALEA: Gasteiz kalearen urbanizazioa.

ITURRALDE: Iturralden ezkerretara igotzerakoan estali gabeko zuloak daude.

BIDEGURUTZEA/PARKEA: Parke nagusian argiztapen falta. Farolak jartzea eskatzen da. Areta kaleko puntu batzuetan eta eliza inguruan ere falta dira. Plaza txiki berrian dauden farolek ez dute behar beste argiztatzen eta aldapako fokuak itzali dira./ Aldapa berrian eskegita dagoen kable elektrikoa.

ATXARTE: Paper zaborrontzi bat kendu izana kritikatzen da. Atxarte 8n aparkaleku bat irabazteko zaborrontziak pixka bat alboratzea eskatzen dute. Eskumena Kuadrillarena dela eta bere kokapena gai gatazkatsua dela erantzuten da./ Azken etxebizitza sustapenaren atzealdean etxe bat okupatu izanak zaratak, zikinkeria eta abarrak sortu dituela eta esku-hartzea eskatzen da./ Bidebarrieta atzealdean etxebizitzetara sartzea ahalbideratzen duen balkoi antzerako bat dagoela eta altuera handia duenez haurrentzako arriskutsua dela aipatzen da. Ingurua babestea eskatzen da, euri jasa handia egiten duenean errekatxo bat sortzen dela gaineratuz.

APARKALEKUAK: Gasteiz kaleko pabilioiei dagokien aparkalekua burutzea.

SANTANA: Santa Anan su gehiago, estalpeak handitzea eta argiztapena areagotzea.

OROKORRA: aparkaleku gehiago eskatzen dira./ Gazteleku bat sortzea proposatzen da./ Garrantzia txikiagoko gaiak konpontzeko eraginkortasun eskasia kritikatzen da./ Karga eta deskarga zein aparkatzeko guneen ordenazioa.

## TEMAS ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARETA 2009

**ASISTENCIA: 36 personas (19 hombres y 17 mujeres)**

CANTERA / SERENA: Construcción de la "Acera de la casa rosa". / Arreglar el aparcamiento de coches y asfaltarlo. / Hace años se pidió que pintasen rayas en el aparcamiento de Serena y en el 2009 seguía sin hacerse.

ANUNTZIBAI / POLIGONO: Información sobre Edar y los colectores. / Impulso de la colaboración entre Orozko y Laudio para revitalizar la zona de Anuncibai, la ferrería, etc. Iluminación en el puente de Anutzibai. / Zona del polígono industrial y de Aplica es un "vertedero" y solicitan que sea ordenado municipalmente con normativas estrictas (también de cara a las nuevas solicitudes de tipo de industria). / Escombros de Corona / Sobre-iluminación en zona Aplica.

CALLE VITORIA: Urbanización de la calle Vitoria

ITURRALDE: En Iturralde al subir a mano izquierda hay baches sin tapar.

CRUCERO / PARQUE: Falta de iluminación en el parque central. Se solicita que se pongan farolas. También en algunos puntos de la calle Areta y en la zona de la iglesia. En la plazoleta nueva las farolas que hay no alumbran suficiente y los focos de la cuesta se han apagado. / Cable eléctrico que cuelga en la rampa nueva.

ATXARTE: Se crítica la eliminación de un contenedor de papel. En Atxarte 8 piden apartar un poco los contendores para ganar un aparcamiento. Se contesta que la competencia es de la Cuadrilla y que su colocación es una cuestión conflictiva. / La ocupación de una casa detrás de la última promoción de viviendas entregada ha generado ruidos, suciedad, etc, y se pide que se intervenga. / Detrás de Bidebarrieta se explica que hay una especie de balcón que permite acceder a las viviendas y en el que hay mucha altura y resulta peligroso para los/as niños/as. Se solicita proteger la zona. Además, en esa zona cuando llueve mucho se forma un riachuelo.

APARCAMIENTOS: / Realizar el aparcamiento que corresponde a los pabellones de la calle Vitoria.

SANTANA: Más fuegos en Santa Ana y se agranden los cenadores y más iluminación.

GENERAL: Se solicitan más aparcamientos. / Se propone crear un Gazteleku. / Se critica la poca operatividad en la resolución de los temas menores. / Ordenación de zonas de carga y descarga y de aparcamientos.

# ARETAKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARETA 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

## 2010EKO ARETAKO UDAL ASANBLADAN JORRATUTAKO GAIAK

**Asistentzia: 35 lagun (17 emakume / 18 gizon)**

HAPOaren aurrerapenari buruzkoak ez dira laburpen honetan jaso, gaur gaurkoz honen garapena zein izango den ez baita ezagutzen. Edozein kasu gai honek asanblada eta berariazko bilerekin prozesu partehartzaile propio bat jarraituko du.

GASTEIZ KALEA: urbanizazio orokorra./ Gasteiz kaleko parke txikian (ehiza eta arrantza) kotxeek aldapan aparkatzen dute oinezkoak errepidera ateratzera behartuz./ Gasteiz kalean, Tunel tabernaren aurrez, zebra-bide bat edo altuera duen espaloi bat jartzea eskatzen da./ Zebra-bide bat jartzea eskatzen da Anuntzibai jauregiaren parean, edo bestela dagoena metro batzuetan (12-15 metro) Orozkorantz aurreratzea.

ETXE LARROSAKO ESPALOIA

ITURRALDE: ur filtrazio arazo bat dago urak jasotzeko espaloirik ez dagoelako edo egoera kaskarrean daudelako./ 18 zk.an ez dira belarrak kendu./ Erorketak ekiditeko jardinera bat jartzeko hitza eman arren ez da jarri.

BIDE ZAHARRAK: bide zaharrean eserlekuak jartzeko eta barandailak konpontzeko eskatzen da./ IZAren kamioiek espaloian zuloak eragin dituzte. Lanengatik ere izkinako farola bat puskatu da eta aparkalekuan argitasunik gabe daude/ Trenbide pasabide kalean izpilu bat jartzea eskatzen da.

"KALE ESTUA" ETA PARKEA: kultura etxeko atzealdean zein parkean zuhaitzak jartzea eskatzen da./ Parkeko errekaren ondoko espaloia altxatuta eta egoera txarrean dago./ Parketik kristalak kentzea eskatzen da./ Jubilatuen zentro berriaren aurrez zebrabide bat jartzea eskatzen da, baita inguru horretan marra jarraia jartzea ere. ETA PARKEA: kultura etxeko atzealdean zein parkean zuhaitzak jartzea eskatzen da./ Parkeko errekaren ondoko espaloia altxatuta eta egoera txarrean dago./ Parketik kristalak kentzea eskatzen da./ Jubilatuen zentro berriaren aurrez zebrabide bat jartzea eskatzen da, baita inguru horretan marra jarraia jartzea ere.

ATXETA: Atxeta kaleko adosatuetako gune baten urbanizazazioa egikaritzea falta dela adierazten da.

BIDEGURUTZEA: Ugarri eta Aratz tabernek inguruan argiztapen handiagoa eskatzen dute./ Kamioiek Orozkorako norantzan Gasteiz kaletik joaterik ez dutela jakin dezaten semaforoan seinale argitsu bat jartzea eskatzen da.

OROKORRA: Aretan Haurreskola bat jartzeko egitasmoari buruzko informazioa eta aukeren berri galdetzen da./ Auzoan dagoen garbiketa falta kritikatzen da./ Udaltzainen presentzia "isunak jartzera" soilik mugatzen dela kritikatzen da eta ez beraien ustez auzoan ematen diren arau-hauste larri eta bizikidetza faltak zigortzera./ Txakurren araudiari buruz eta auzoan emandako gertaera ezberdinei buruz eztabaidatzen da. Batzuk txakurrentzako guneak mugatu behar direla uste dute eta beste batzuk pertsonak dauden espazioak partekatzearen alde agertzen dira./ Lapurketak ekiditeko arketak ezartzea eskatzen da./ HAPOari buruzko berariazko bilera bat proposatzen da.

HAPOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO GAIAK: Landetaren mihia / Atxarte auzoaren berrikuspena.

## TEMAS ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARETA 2010

- Asistencia: 35 personas (17 mujeres / 18 hombres)

Se han eliminado del presente resumen los temas relativos al avance del PGOU por desconocerse a día de hoy cúal será su evolución. En cualquier caso seguirá un proceso propio de participación con asambleas o reuniones específicas.

CALLE VITORIA: Urbanización general. / En el parque pequeño de la calle Vitoria (Caza y pesca) aparcan los coches en la rampa y se obliga a los peatones a salir a la carretera. / Se solicita colocar un paso de cebra o acera elevada en la Calle Vitoria enfrente del Bar El Túnel. / Se solicita poner un paso de cebra a la altura del Palacio de Anuncibai o bien adelantar el existente unos metros hacia Orozco (12-15 metros)

ACERA DE LA CASA ROSA

ITURRALDE: Hay un problema de filtración del agua porque no hay aceras para recoger las aguas o están en mal estado. / En el n°18 dicen que no se quitan las hierbas. / Se prometió poner una jardinera para evitar caídas pero no se ha hecho.

CAMINOS VIEJOS: Se solicita poner bancos en la Caminos Viejos y arreglar las barandillas / Los camiones de Iza están provocando agujeros en la acera. También por las obras se ha roto una farola de la esquina y en el parking están sin iluminación / En la calle Paso a Nivel se solicita poner un espejo.

LA CALLEJA Y PARQUE: Se solicita poner árboles detrás de la casa de cultura y también en el parque. / La acera al lado del río, en el parque, está levantada y en mal estado. / Se solicita quitar cristales del parque / Se pide un paso de cebra enfrente del nuevo centro de jubilados y línea contínua en esa zona

ATXETA: Se señala que queda pendiente la ejecución de la urbanización en una zona de los adosados de la calle Atxeta.

CRUCERO: Los bares Ugarri y Aratz piden más iluminación en la zona. / Se solicita poner una luminosa en el semáforo para que los camiones sepan que no pueden ir dirección Orozko por la calle Vitoria.

GENERAL: Se solicita información y la contemplación del proyecto de Haur eskola en Areta / Se crítica la falta de limpieza en el barrio. / Se critica la presencia de la policia municipal que sólo va "a poner multas" y no para sancionar las infracciones graves y la falta de civismo que entienden hay en el barrio. / Se discute sobre la regulación de lo relativo a los perros y ciertos incidentes habidos en el Barrio. Hay quienes defienden que se restrinjan zonas para los perros y quienes apuestan porque puedan estar compartiendo los espacios donde están las personas. / Se pide fijar las arquetas para impedir robos. / Se propone una reunión específica sobre el PGOU.

TEMAS A CONSIDERAR EN EL PGOU: Lengua de Landeta / Revisión del barrio de Atxarte.

# ARETAKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARETA 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

## GAIORDEN PROPOSAMENA:

1.- Gaiorden proposamenaren onarpena.

2.- Hurrengo auzo asanbladen mekanismoari buruzko iritziak eskatuko ditu Udalak.

3.- Ekaineko hauteskundeen ostean sortutako Udalbatza berriaren ostean, Gobernu Taldeko kide batek Udalaren egungo egoeraren berri emango du: egoera ekonomikoa, orain arte emandako urratsak, Aldundia eta gainerako erakundeekin izandako harremanak eta abar. Urteko kudeaketa txostena burutzeari buruzko informazioa.

4.- Galdera, zalantza eta kritiketarako auzokideentzako txanda irekia.  Gaiak taldekatzen saiatuko da. Helburu nagusia Aretako kezken argazki eguneratua eskuratzea da.

5.- Alkatearen, udal teknikarien eta presente dauden talde politiko bakoitzeko ordezkari banaren erantzun txanda.

6.- Auzokideentzako gaien puntualizazio edo sakontzerako txanda azkarra.

7.- Asanbladaren itxiera alkatearen eskutik.

*** Idazkari gisa jardungo duen udal teknikari batek planteatzen diren gai guztien oharrak jasoko ditu,; kexu, galdera, ekarpen edo iradokizun gisa sailkatuz.

Beste udal teknikari batek moderatzaile gisa jardungo du.

Asanblada ospatu eta egun gutxira auzoan honako orri honen tankerako bat banatuko da, asanbladaren akta jasoz. Bertan planteatutako gai guztiak jasoko dira, baita bakoitzari emandako erantzunak ere. Horrela, hurrengo asanbladetarako erreferentzia gisa baliogarri izango den euskarri horrekin bertaratzerik izan ez dutenei informazioa luzatu nahi zaie.

## PROPUESTA DE ORDEN DEL DÍA:

1.- Aprobación de la propuesta de Orden del Día.

2.- Solicitud de opinión por parte del ayuntamiento sobre el mecanismo de asambleas de barrio de cara al futuro.

3.- Breve presentación de la situación actual del ayuntamiento tras la incorporación de la nueva corporación surgida tras las elecciones de junio: Situación económica, ordenanzas, relaciones con Diputación y otras instituciones, etc.

4.- Turno abierto de preguntas, dudas y críticas por parte de los vecinos y vecinas. Se procurarán agrupar por temas. El principal objetivo es obtener una radiografía actualizada de las preocupaciones de Areta.

5.- Ronda de respuesta del alcalde, de los técnicos municipales y de los grupos políticos presentes.

6.-. Turno rápido de puntualizaciones o ampliación de cuestiones por parte de los vecinos.

7.- Cierre de la asamblea por parte del alcalde.

*** Un técnico municipal que ejercerá de secretario/a, tomará nota de todas las cuestiones que se planteen, clasificándolas como quejas, preguntas, aportaciones o sugerencias.

Otro técnico municipal ejercerá de moderador

Unos días después de la asamblea se buzoneará en la zona una hoja similar a esta donde se recojerá el acta de la asamblea. En ella aparcerán todos los temas planteados así como las respuestas a cada uno de ellos, con el objetivo de informar a quienes no hayan podido asistir, y con la intención de que sirva de referencia para posteriores asambleas.